

## FUNTZIO ELKARTEAK

Gure enpresa optimizatzeko eta zerbitzu ezin hobea emateko, beste enpresa batzuekin akordioak sinatuko ditugu. Hasteko, hiru izango dira:



Gimnasioekin edo adineko jaunentzako dantzalekuekin lotura izango dugu. Hau truke txiki baten bidez egingo dugu, zerbitzu horiek ere etekina atera dezaten.

Gimnasioen kasuan, mesede egin liezaiguke guri ekarriko liguketen edo utziko liguketen beren materiala jauntxo nagusiek aktibitate fisiko programak eman ahal izateko, eta, hala balitz, babes pixka bat eman ahal izango genieke senideei. Gimnasioak etekina hartu dezake zeren eta bezero berriak erakartzeko aukera ona izango dute, batez ere boluntarioak edota agureekin bizi diren ikasleak.



Esate baterako, agureek egoitza horretakoak ez diren lagunak ere izango dituzte, orduan haiei esan ahal dute eta haiei esan bertara joateko, gainera talde zabala izango denez, gimnasioa haien familiakoei eskaintza berezi bat egiteko aprobeitza baitaiteke. Bestetik, gimnasioak diru bat jasoko du gure aldetik emandako laguntzagatik.

Bestalde, dantzalekuak bilatuko ditugu aiton amonak dantza estilo desberdina batzuk egiteko. Horrela, saiatuko gara beren lekua utz diezaguten beren musika gailuak barne hartuta aiton amonek dantza egin dezaten. Horren truke, dantza-klubak ere aurrez adostutako diru bat jasoko du. Eta lehen esan dugun moduan, agureen senideak edota haiekin bizi diren ikasleak dantzaleku horretara joaten has daitezke.



Era berean, <http://www.viajesalmaden.com/colectivos/> elkartearekin hitz egin dezakegu. Zaharrek hainbat jarduera, txango eta abar egin ahal izango lituzkete. Hau premium aukera bat da, hau da, eskaintzen dugun zerbitzua da, baina egin ahal izateko, gastu handiegia izango denez. Hau da, txangoak egin nahi dituen adineko pertsona bakoitzak diru-kopuru bat ordaindu beharko du, bidaiaren helburuaren arabera. Eta diru hori kontratatutako agentziari emango diogu bidaia antolatzeke.

Beste elkarte bat eskolak izango lirateke, eskola batzuetan "P.E.S" (Proyecto de Educación Social) izeneko aktibitate sozial bat egiten da, zeinetan ikasleak, batxilergoko ikasleak hain zuzen ere, aktibitate horietan parte hartzen, beraz, horiekin ere "aliatu" gintezke eta horrela langileak eta boluntarioak izan genitzake.

Adibidez; <https://www.berriotxoia.eus/es/pastoral/pes-y-aps.html>

